



## Fedeafeseko presidente Mari Ángeles Arbaizagoitiak Sareen Saria jaso du, urte askoz buru osasunaren alde erakutsitako konpromisoagatik

- Arbaizagoitiak 36 urte daramatza boluntario gisa. “Bere ibilbide luze eta oparoan erantzun kolektiboak eraiki ditu osasun mentalaren esparruan, eta eredugarria da sektore osoan, bai Araban eta baita Euskadin ere”, azaldu du Sareen Sareko presidente Borja Dovalek.
- “Familiak Administrazioaren aurretik joan gara, baliabiderik ez zegoenean laguntza eskainiz, eta beti boluntariorzatik. Erakunde publikoek eskaintzen ez zituzten baliabideak sortu genituen eta erantzukizun publikoko zerbitzuak dira egun”, adierazi du Fedeafeseko arduradunak.

Buru osasuneko arazoak dituzten pertsona eta senide elkarleen Euskadiko federazioko ([Fedeafes](#)) presidente M<sup>a</sup> Ángeles Arbaizagoitiak Sareen Sarearen aitortpena jaso du gaur, maiatzak 12. Urtero, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Egunarekin bat ematen duten sariak Euskadi solidarioagoa, kohesionatuagoa eta inklusiboagoa eraikitzen lagundu duten pertsonen lana aitortzen du.

Arbaizagoitiak 30 urte daramatza boluntario gisa. “Bere ibilbide luze eta oparoan erantzun kolektiboak eraiki ditu osasun mentalaren esparruan, eta eredugarria da sektore osoan, bai Araban eta baita Euskadin ere”, azaldu du Sareen Sareko presidente Borja Dovalek. Nabarmen hunkituta, “buru osasuneko arazoak dituzten pertsonentzako baliabideetan gehiago inbertitzeko” eskaera egin du, “giza eskubideen errespetua eta pertsonen bizitza autonomoaren sustapena kontuan hartuta”.

Fedeafeseko ordezkari nagusiak gogora ekarri ditu elkar mugimenduan emandako lehen urteak, haren seme Txomin gaixotzearekin batera. Duela 30 urte, bere buruaz beste egin zuen semeak, eta Arbaizagoitiak, une gogor haiei aurre eginez, kolektiboaren alde buru-belarri lanean jarraitzea erabaki zuen. “Bidegabekeri izugarria sentitu nuen buru osasuneko arazoa zuten pertsonak alboratzen zirela ikustean. Bakardadera bultzatzen ziren, bizi-proiektu duinik izateko itxaropen guztiak ezabatuta. Egoera horri eta baliabide faltari aurre egiteko, semearen heriotzaren ostean ere pertsona hauen alde lanean jarraitzeko erabakia hartu nuen, buru nahasmendua dutenentzako arreta egokia aldarrikatzeko”, adierazi du.

“Familiak Administrazioaren aurretik joan gara, baliabiderik ez zegoenean laguntza eskainiz, eta beti boluntariorzatik. Erakunde publikoek eskaintzen ez zituzten baliabideak sortu genituen eta erantzukizun publikoko zerbitzuak dira egun”, aipatu du Agifes (Gipuzkoa), Asafes (Araba), Asasam (Aiarako bailara, Araba) eta Avifes (Bizkaia) elkarreak bateratzen dituen federazioko arduradunak.

Youtube bitartez zuzenean emandako ekitaldian, Iñigo Urkullu lehendakariak Mari Ángelesen ibilbidea txalotu eta hirugarren sektore sozialeko erakundeen zeregina azpimarratu du: pertsona bakoitza oinarri hartuta, ongizate kolektiboa eraikitzen laguntzen dutela nabarmendu du, eta aipatu du parte-hartzea bultzatu nahiz eskubide eta erantzukizun publiko partekatuak defendatzen dituztela esku-hartze sozialaren esparruan.